

Euskal heziketaz, berriz ere



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA

Ondorengo lerroetan, euskal hezkuntza-sistemari buruz iritzia ematera natorkizue, *euskal eskola publiko* delakoaren aldeko (batzu)ek *ikastola*-ren kontra beste behin abiatu duten erasoak sortutako zalapartaren harira, edo aitzakian. Eztabaidak, ez dizuet ukatuko, aspertu egiten nau. Eztabaidak, edo eztabaidaren mailak. Nondik heltzen zaion, zer markotatik aztertzen den arazoa, zer argumentu (ahul) erabiltzen den erasoei aurre egiteko, edo nondik eta nora egiten diren ika-mika klasiko hau gainditu ahal izateko proposamenak.

Hala ere, edo beharbada horrexegatik, nik ere nahi dut eztabaidara nire gogoeztatxo ekarri. Nahiz eta oso oinarrizkoa iruditzen zaidan zuei esateko daukadana, benetan. Hainbeste non batere argi ez dudan zer ote den sentitu beharko nukeena. Lotsa, honezkero gauza jakina beharko lukeena aportazio izan daitekeela pentsatzeagatik. Ala etsipena, honezkero gauza jakina beharko lukeena oraindik aportazio dela jakiteagatik.

Ea, has gaitezen guziok batzen gaituen baieztaenetik. Denak gara euskal eskola publikoaren aldekoak, horretan dudarik ez da. Arazoa da ez daukagula, ez dela existitzen, eta are okerrago dena, ezinezkoa izanen zaigula gure mendekotasun egoerak iraun bitartean, burujabetza fal-



ANTTON OLARIAGA

taren ondorio zuzena baita funtsezkoak diren esparruen gaineko eskumenik ez edukitzea, eta arlo horietarikoa baita, noski, hezkuntzarena. Herri batentzat hil ala biziko kontua da belaunaldi gazteagoen heziketa diseinatu ahal izatea, herri horren biziraupena baitago jokoan, besteak beste. Orduan, galdera serioa: benetan pentsatzen al du inork gure esku utzi duela Espainiak maila horretako eginkizun baten gaineko autoritatea?

Izen horixe hartzen badu ere, ez da benetako euskal eskola publikoa orain eta hemen ezagutzen duguna. Baina tira, Eusko Jaurlaritza ere euskaldunon gobernu ez den bezalaxe, edo legebiltzarrara gure legeak egiten diren benetako tokia ez den bezala, ez dakit nola esan. Ez da geure beharrei erantzuteko euskaldunok sortua den heziketa, Espainiak beretzat eraikitakoaren bertsio autonomikoa baizik. Euskarazko izenarekin emana, hori bai, eta euskaraz. Baina asimilazioaren amua gozoki irentsi dezagun, besterik gabe. Eta sakonkiago barneratu, mezua.

Ikastolak, Euskal Herriaren eskola nazionalaren funtzioa betetzeko prentzioarekin sortu ziren. Hezkuntza-sistema propioaren hutsunea orain baino agerikoagoa omen zen, Espainiak eta Frantziak ez zuten orain bezainbeste kamuflatu beren heziketaren bitartez

gurean benetan lortu nahi zutena, eta oraindik gai ginen arrotasunak zekartzan arriskuei usain hartzeko. Nonbait, ez genuen orain bezain kaltetua erreakzionatzeko gaitasuna, eta indartsu genuen geure burua babesteko beharrezkoa den sistema immunea. Kontua da, gai izan ginela hezkuntza-sistema propio baten hazia ereiteko, noiz eta lehen frankismoaren garaietan.

Burujabetzarako bidean, baina, ez da ekimen-gaitasun hutsa aski. Garaipenak fite behar dira nazio-estrategia politiko orokorrago baten baitan txertatu, etsaiak hartu eta beretzat kapitalizatuko ez baldin baditu, ikastolen ibilbideak ongi erakutsi digunez. Orain, ez dut uste diferentzia handia egongo denik Orioko ikastolan edo Orioko eskolan ikastearen artean. Ez eta ere, berdina izango denik Berako ikastolan edo Hendaiako ikastolan haur batek ikasiko duena. Azkenean, administrazio berdinetan daude maila batean edo bestean integratuta, eta estatatu berdinek dizkiete kontuak eskatzen, akademikoak, ekonomikoak, eta bestelakoak. Hori da tranpa.

Utz ditzagun errazak diruditen borroka partzialen bideak, antzuak baitira. Eta heldu diezaiozun erresistentzia eta askapen nazionalaren bide seguruari. Energia horretan baino xahutu ez dezagun, ez du-eta merezi, sinetsiiezadazue. ●